**III. eranskina: ENTITATE PRIBATUEK IRUNGO UDALERRIAN DITUZTEN LANTOKIETAN EUSKARAREN ERABILERA-PLANAK EGIN EDOTA GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

*Anexo III: SUBVENCIONES PARA LA CREACIÓN O EL DESARROLLO DE PLANES DE EUSKERA EN LOS CENTROS DE TRABAJO DE ENTIDADES DEL SECTOR PRIVADO DE IRUN*

| | |
|---|---|
| **1.- Artikulua.- Xedea eta zenbatekoa**<br><br>Oinarri hauen xedea da, entitate pribatuek Irungo udalerrian dituzten lantokietan euskararen erabilera planak egin edota horiek 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte garatzeko laguntza ekonomikoak emateko oinarriak norgehiagoka arautzea, subentzioak arautzen dituen 38/2003 Lege Orokorrean eta Legea garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera. Diru-laguntza hauek LanHitz programa markoaren baitako Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) definitutako helburuak, jardunak eta jarduerak gauzatzen laguntzeko baliabideak jartzera dator. | **Artículo 1º.-Objeto y dotación**<br><br>Es objeto de esta línea de subvención establecer las bases reguladoras para subvencionar en régimen de concurrencia competitiva la elaboración de planes de normalización del uso del euskera y/o su implementación en las entidades privadas de Irun hasta el 30 de octubre de 2015, según lo recogido en la Ley 38/2003 General de Subvenciones. Estas subvenciones pretenden dotar de recursos que ayuden en el cumplimiento de los objetivos y actividades definidas en el Marco de Referencia Estándar (EME) programa marco recogido en LanHitz. |
| **2. artikulua.- Eskatzaileak**<br><br>Legez eratu eta dagokion erroldan inskribaturiko pertsona juridiko pribatuak izan daitezke oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzen eskatzaileak, lehenengo artikuluan aipatutako sustatze-jarduera horien helburu diren esparruetan sartzen badira eta oinarri hauetako laugarren artikuluan xedatutako baldintzak betetzen baldin badituzte.<br><br>Entitate horietaz gain, eta oinarri hauen 1. artikulua kontuan izanda, diru-laguntza eskatu ahalko dute Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideen 2008ko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuaren eraginpean dauden bidaiarien errepideko garraio publiko erregularreko zerbitzuak ematen dituzten enpresek eta jendeari saltzeko gunearen azalera 400 metro karratutik gorakoa duten establezimenduek.<br><br>Diru-laguntza lerro honetatik kanpo daude irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak. | **Artículo 2º.- Solicitantes**<br><br>Pueden solicitar estas subvenciones aquellas personas jurídicas privadas que se hallen constituidas legalmente con arreglo a la legislación vigente e inscritas en el registro correspondiente, siempre y cuando, se ajusten al objetivo recogido en el artículo primero de esta bases y cumplan los requisitos marcados en su artículo cuarto.<br><br>Además de dichas entidades, y teniendo en cuenta el artículo 1º de estas bases, podrán presentar solicitud de subvención las empresas que presten servicios de transporte público regular de personas por carretera, y los establecimientos que cuenten con una superficie de venta al público superior a 400 metros cuadrados, sujetos al Decreto 123/2008, de 1 de julio, sobre los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias.<br><br>Quedan excluidas de esta subvenciones las entidades privadas sin ánimo de lucro. |
| **3. artikulua.- Diruz lagundutako jarduerak**<br><br>Oinarri hauetako diru-laguntzak ondoren aipatzen diren jardueretarako erabiliko dira:<br><br>– Entitateko lehen euskara planaren diseinurako, 2017an egingo bada.<br>– 2017ko kudeaketa planaren garapena | **Artículo 3º.- Actividades subvencionables**<br><br>Las subvenciones previstas en esta línea de subvencion se destinarán a financiar las siguientes actividades:<br><br>– Diseño del primer plan de euskera de la entidad, siempre y cuando se realice en el 2017.<br>– Desarrollo del plan de gestión de 2017 |

Baldintzak betetzen dituzten entitateek bi jardueretarako laguntzak eska ditzakete.

**4.- artikulua.- Diru-laguntzak jasotzeko eskatzaileek bete beharreko baldintzak eta betebeharrak**

Diru-laguntza jaso ahal izateko honako baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek:

- Arrazoi soziala Irunen izatea.
- Diru-laguntza eskaera egina izatea, Eusko Jaurlaritzako kultura sailak EAEko lantokietan euskararen erabilera plana egin edota 2017an garatzeko diru-laguntzetarako.
- Entitatearen Organo Exekutibo Gorenaren oniritzia Euskara Planaren diagnostikoa eta urteko kudeaketa-planen dokumentuekiko
- Proiektuaren auto-finantzazioa gutxienez %33koa izatea
- Udalarekiko interlokutorea beti izango da erregistroan ordezkari gisa inskribatutako pertsona/k.

**5. Artikulua.- Diruz lagungarria dena**

Diru-laguntza hauen araberako gastuak, honako kontzeptu hauei dagozkienak baizik ez dira izango:

- Entitateetan euskararen erabilera plana diseinatu edo honen baitako kudeaketa planak garatzeko kontratatu daitekeen hizkuntza aholkularitza enpresen gastua.

- Entitateetan euskararen erabilera plana diseinatu edo honen baitako kudeaketa planak garatzeko haren langileen lan jardunaren dedikazioa ziurtagiri bitartez justifikatua.

**6. Artikulua.- Eskaria**

Eskariak, Irungo Udalak emandako eskari ereduaren arabera (**A eranskina - Euskarako diru-laguntzak eskatzeko inprimakia**) eta behean zehaztutako dokumentazioaz lagunduta aurkeztu beharko dira:

- **Egitasmoaren azalpena (B3 eranskina)**
- **Aurrekontua (C eranskina)**
- **Ardurapeko adierazpena eta datuak eskatzeko baimena**

**7. Artikulua.- Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak**

Las entidades que cumplan los requisitos podrán solicitar subvención por ambas actividades.

**Artículo 4º. - Requisitos y obligaciones para acceder a las subvenciones**

Para poder acceder a las subvenciones las y los solicitantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Tener la razón social en Irun.
- Haber cursado solicitud de subvención en el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco para la elaboración o el desarrollo de planes de uso del euskera en los centros de trabajo de la CAV durante el 2017.
- Conformidad por parte del Órgano Ejecutivo Máximo de la entidad con el documento del plan de gestión anual y del diagnóstico.
- La autofinanciación del proyecto será por lo menos del 33%.
- El/la interlocutor o interlocutores con el Ayuntamiento siempre serán las inscritas en el registro correspondiente.

**Artículo 5º. Gastos subvencionables**

Los gastos contemplados en estas subvenciones son únicamente los correspondientes a los siguientes conceptos:

- Los gastos de empresas de asesoría lingüística destinados al diseño del plan de euskera o al desarrollo de los planes de gestión.

- Los certificados de empresa relativos a la dedicación del personal de la misma para el desarrollo del plan de euskera o los planes de gestión.

**Artículo 6º. Solicitud**

Las solicitudes se presentarán según modelo que facilite el Ayuntamiento de Irun (**Anexo A - Impreso de solicitud subvenciones de Euskera**) acompañadas de la siguiente documentación:

- **Descripción del proyecto (anexo B3)**
- **Presupuesto (anexo C)**
- **Declaración responsable y autorización de consulta de datos.**

Lehiaketa bidez erabakiko da diru-laguntza hau; hots, aurkeztutako eskabideen arteko konparaketa egingo da eta finkatutako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, egitasmo bakoitzari dagokion puntuazioa emango zaio

Aurkeztutako eskabideen arteko konparaketa egingo da eta lehentasunak ezarriko dira honako irizpide hauen arabera:

1.- Diagnostikoa eta 2017rako kudeaketa-planaren kalitatea (egindako diagnosiaren, aukeratutako helburuen eta planteatutako ekintzen egokitasuna eta bideragarritasuna): 15 puntu, gehienez.

2.- Adierazleen egokitasuna baloratuko da: 5 puntu, gehienez.

3.- Entitatean Euskara Planaren errotze- eta instituzionalizatze-maila: Euskara Batzordea duten ala ez eta bere osaera (baloratuko da zuzendaritza-mailako ordezkariak egotea, eta aginte-maila desberdinetako langileak egotea); Euskara Batzordea enpresaren organigraman dagoen ala ez; Euskara-planaren helburu nagusiak plan zabalagoan jasota ote dauden (estrategikoan, adibidez); euskara-plana entitatearen kalitate-planean txertatuta dagoen; entitate osoko hizkuntza-politika zehazten duen adierazpenik dagoen; euskararekiko jokabidea prozeduretan txertatuta dagoen; hizkuntza-irizpideak zenbait arlotan indarrean dauden (arlo berrietara hedatzeko ahalegina): 10 puntu, gehienez.

4.- Entitateko langile-kopurua: 50 puntu, gehienez.

Faktore hau kalkulatzeko diru-laguntza eskaria egiten dutenen artean entitateko langile-kopuruaren batez bestekoa egingo da.

| Langile kopurua | Puntuazioa |
|---|---|
| Batez bestetik gora | 50 puntu arte |
| Batez bestetik abiatu | 5 puntu |
| Batez bestetik behera | Puntu 1 |

5.- Auto-finantziazioa: 5 puntu, gehienez, ondoko taulan zehaztutakoaren arabera:

**<u>Artículo 7º.- Criterios para conceder las subvenciones</u>**

Estas subvenciones se resolverán atendiendo a los criterios de valoración fijados, a fin de establecer la puntuación correspondiente a cada proyecto.

Se hará una comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los siguientes criterios de valoración:

1.- Calidad del plan de gestión de 2017 y del diagnóstico (idoneidad y viabilidad del diagnóstico, de los objetivos elegidos y de las acciones planteadas): máximo 15 puntos.

2.- Idoneidad de los indicadores: máximo 5 puntos.

3.-Grado de afianzamiento e institucionalización del plan de euskera en la entidad: si cuentan o no con una Comisión de Euskera y su composición (se valorará la participación de la dirección, y trabajadores/as con diferentes grados de responsabilidad); si la Comisión de Euskera está incluida en el organigrama de la entidad; si los objetivos del plan de euskera están recogidos en un plan más amplio (por ejemplo, en el plan estratégico); si existe alguna declaración sobre la Política Lingüística de la entidad; si el plan de euskera está incluido en el plan de calidad; si las directrices de uso del euskera están procedimentadas; si existen criterios lingüísticos establecidos en diferentes áreas (el esfuerzo para que se extiendan a nuevas áreas): máximo 10 puntos.

4.- Número de trabajadores/as de la entidad: máximo 50 puntos.

Para calcular este factor se calculará la media entre el número de trabajadores/as de las entidades que realicen la solicitud de la subvención.

| Número trabajadores/as | Puntuación |
|---|---|
| Por encima de la media | Hasta 50 puntos |
| Media resultante | 5 puntos |
| Por debajo de la media | 1 punto |

5.-Autofinanciación: máximo 5 puntos, según lo establecido en la tabla adjunta:

| Auto-finantziazioa | Puntuazioa |
|---|---|
| %60 -%66 | 5 |
| %54% - %59,99 | 4 |
| %47% -% 53,99 | 3 |
| %40,01 - %46,99 | 2 |
| %33 -%40 | 1 |

6.- Ikasleei lan-praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzea: 5 (bost) puntu gehienez.

a) 2017an ez da egongo ikaslerik lan-praktikak euskaraz egiten: 0 puntu.

b) 2017an lehen aldiz izango dira ikasleak lan-praktikak euskaraz egiten: 3 puntu.

c) Lehenagotik ere aukera eskaini eta 2017an ere izango dira ikasleak lan-praktikak euskaraz egiten: 5 puntu.

**8. Artikulua.- Onuradunen betebeharrak**

Subentzioa jasotzen dutenek ekintzaren jarraipena errazteko konpromisoa hartzen dute eta honako dokumentazio hau aurkeztuko dute:

- **Euskarako diru-laguntzak justifikatzeko inprimakia (D eranskina),**
- **Balantze ekonomikoa (F. eranskina),**
- **Faktura-justifikanteen zerrenda (G. eranskina)**
- **Proiektuaren Memoria edota Justifikazioa (E3 eranskina).**

Ez da beharrezkoa izango fakturak aurkeztea. Behin aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, Udalak eskatuko ditu.

**9. Artikulua.- Diru-laguntzaren ordainketa**

Diru-laguntzak epe bakarrean ordainduko dira onuradunek oinarri hauen zortzigarren atalean zehaztutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, gastu fakturak eta agiriak laginketa monetarioaren bidez eskuratu ondoren eta teknikari gaituak txostena eman eta gero.

| Autofinanciación | Puntuación |
|---|---|
| 60% - 66% | 5 |
| 54% - 59,99% | 4 |
| 47% - 53,99% | 3 |
| 40,01% - 46,99% | 2 |
| 33% - 40% | 1 |

6.- Ofrecer la opción de realizar prácticas laborales en euskera a estudiantes: máximo 5 puntos.

a) En 2017 no habrá estudiantes realizando prácticas laborales en euskera: 0 puntos.

b) En 2017 por primera vez habrá estudiantes realizando prácticas laborales en euskera: 3 puntos.

c) Con antelación ya se ofertaban y también en 2017 habrá estudiantes realizando prácticas laborales en euskera: 5 puntos.

**Artículo 8º.- Obligaciones de las y los beneficiarios**

Quienes reciben la ayuda se comprometen a facilitar el seguimiento de la actividad y presentarán la siguiente documentación:

- **Impreso de justificación de subvenciones de Euskera (anexo D) ,**
- **Balance Económico (anexo F),**
- **Relación de de facturas-justificantes (anexo G)**
- **Memoria y/o Justificación del proyecto (anexo E3)**

No será necesario presentar las facturas. El Ayuntamiento las solicitará una vez analizada la documentación presentada.

**Artículo 9º.- Pago de la subvención**

Las subvenciones se abonarán en un único pago, una vez que las y los beneficiarios hayan presentado la documentación mencionada en el artículo octavo de estas bases, se hayan obtenido las facturas y abonos de gasto mediante muestreo monetario y una vez evacúe informe el técnico competente.